



Aurrena, etxean landutakoa aztertuko dugu. «Nortzuk marraztu dituzue 24. orrialdean?». Haur bakoitzak esan dezala bere familiako nor marraztu duen.

«Zein da 25. orriko umetxoa?» Jesus.

«Ba al dakizue Jesusen amak zer izen duen?» Maria.

«Eta aitak?» Jose.

Goazen orain 26., 27. eta 28. orrialdetara. Saia gaitezen denon artean, eta irudiez lagunduta, Jesusen jaiotzaren nondik norakoak kontatzen.

Ikus dezagun 31. orrialdean zer marraztu duten.

Hor daukazue aingeruaren irudia ere, margotzeko.









Margotu ondoren, sokatxo bat jarriko diogu, eta etxera eramango dute. Margotzen ari diren bitartean, Jesusen jaiotzaren kontakizuna irakur diezaiekegu, Haurren Bibliatik.







Denborarik izanez gero, jaiotzaren dominora joka dezakegu. Guztira 21 fitxa dira; beraz, taldeak egingo ditugu (3 edo 4), denek jokatzeko.

Fitxak banatu. Jesus bikoitzaren fitxa duen taldea hasiko da.

Bukatzeko, liburuak jaso eta otoitz egingo dugu.









Jesus, jaiotzera zoaz
eta gustatuko litzaidake
mundulo etxe guztietan
eta gure bihotz guztietan jaioko bazina.
Zatoz, izan zaitez ongi etorria.